

AIARALDEA *hemen*



PATIENCE IDEMUDIA:
“Pentsamendu kritikoak begirada enpatikoagoa eskaintzen digu, problematikei aurre egiteko” 8-9 or.

HAUTESKUNDE GEHIGARRIA:
Alkategaien iritziak, analisiak, azken urteetako emaitzak eta erreportajeak



“Beste espresio artistikoez ez duten gauza bat du magiak: sorpresa”

URDUÑA 5
Hilerrian desobiratutako lehenengo gorpua identifikatu dute
Fructuoso Llorens 1941ean hil zen Urduñako espetxe frankistan preso zegoela

HEZKUNTZA 7
Latorro ikastetxearen 50 urteko ibilbidea argazkitan jaso dute
Irakasle-ohi talde bat dago Kultur Etxeko argazki erakusketaren atzean

AIARALDEA 6
Eskala handiko hiru azpiegitura energetiko eraiki nahi dituzte
Azpiegitura eoliko bat eta bi fotovoltaiko egin nahi ditu Eusko Jaurlaritzak

KIROLA 12
Amurrioko bowleren lehen urteurrena antolatu dute hainbat zalek
Erakustaldia eskainiko dute Sergio Layosek, Javitxu de la Torrek eta Ian Poncianok



KUXKUXEATU PINTXOAK!

LAUDIOKO XIII. PINTXO LEHIAKETA

KATEGORIAK
Pintxo librea
Barrarik hoberena

Maiatzak
19, 20, 21, 26, 27 eta 28



dastatu Laudio

LAUDIO
COMERCIO Y OCIO
www.laudiocomercial.com
Twitter Instagram Facebook

LAUDIO
AYUNTAMIENTO DE LLUDIO

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLUDIO

elkarrizketa

“Praktikatuz eta praktikatuz garatu dut magia egiteko estilo propioa”



PEIO RIVAS (Laudio, 2003) IBILBIDE METEORIKOA ARI DA EGITEN MAGIAREN MUNDUAN. 2016AN, LESIO BAT TARTEKO, KARTEKIN TRIKIMAILUAK EGITEN HASI ZEN. APIRILEAN ORDU BETEKO MAGIA IKUSKIZUNA ESTREINATU ZUEN BILBON.



Testua eta argazkia
**Aimar
Gutierrez Bidarte**

Bueltaka aritu zara azken aste hauetan ikuskizun berriarekin, ezta?

Bai, Errioxan, Donostian, Bilbon... leku askotan egon naiz, bai! Oporrekin eta unibertsitateko ikasketekin dena korapilatu zait gehiago, baina ondo nago! (barreak)

Nola murgildu zinen magiaren munduan?

Futboleko jolasten nuen nik, baina lesio baten ondorioz magiaren zaletasuna piztu zitzaidan. Lesionatuta eta geldirik egon nintzen sasoiaren, denbora libre asko nuenez, telebisatn *Got Talent* programaren lehenengo edizioa ikusi nuen; bertan mago bat agertzen zen kartak kolorez aldatzen zituena eta liluratuta geratu nintzen. 2016an izan zen hori, eta geroztik nire pasioa eta bizimodua izan da magia.

Urte hauetan guztietan asko aldatu da zure magiarekiko pertzepzioa?

Bai, noski! Azken finean arte batean murgiltzen zarenean, hasieran normala da kopiazea, edota beste magoek egiten dituzten gauzak jarraitzea. Horrela hasi nintzen ni ere. Lehenengo hilabeteetan YouTubean ikusitako bideoetan oinarritzen nintzen trikimailuak egiteko, gidoi eta egiteko modu berdina erabiltzen nituen. Gero, Bilboko akademia batean sartu nintzen, eta bertan bi urte igaro nituen. Akademia gehiago sakondu nuen gidoiaren garapenean, baita magiaren alderdi psikologikoan ere.

Baina, azken finean, norberak bere estilo propioa garatzea da gakoa. Horretarako ezinbestekoa da dedikazioa eta zure buruarekin orduak igarotzea. Praktikatuz eta praktikatuz garatu nuen nire estilo propioa. Mago bakoitzak bere moduak ditu; batzuk txantxak egiten dituzte, beste batzuk ez dute hitzik egiten...

Zu kartekin aritzen zara. Zeintzuk dira zure magiaren osagaiak?

Magiaren barruan espezialitate asko daude. Nire espezialitatea karten manipulazioa da: kartak agertzea, desagertzea, kolorez aldatzea... Esan ohi da hau dela magia estilorik zailena. Izan ere, musika eta magoaren eskuak besterik ez dira erabiltzen, ez dago beste ezer zure eta ikusleen artean. Teknikoki oso zaila da hori, eta mugimendu guztiak behin

eta berriro errepikatu behar dira ondo ateratzeko. Nik 5-10 minutuko ikuskizun bat egiteko orduak eta orduak ematen ditut etengabe mugimendu berdina errepikatuz.

Ikuskizun luzeago bat ere aurkeztu duzu, ordea.

Apirilaren 14an *Ver para creer* ikuskizuna aurkeztu nuen Bilbo-rock aretoan. Ordubeteko saioa izan zen. Bertan ez dut bakarrik karten manipulazioa egiten; mentalismoa, sokekin trikimailuak, arbel eta gutunazalekin trikimailuak... ere gehitu ditut ikuskizunera.

Ezin duzu espezialitate bakar bateko show bat egin, oso zaila da eta dinamismo gutxiago dago.

Nola lantzen duzu ikusleen arlo psikologikoa ikuskizun baten aurretik?

Onena publikoarekin entseatzeari da. Nire kasuan, gurasoekin praktikatzen ditut magia trikimailuak. Euren jarrera aztertzen dut, begirada, begiak nora mugitzen dituzten... guzti hori hartzen dut kontuan jokoak prestatzerako orduan.

Antzokiz antzoki ikuskizunak egin ahala ere, ohartuz noa zerk funtzionatzen duen gehiago eta zerk gutxiago, eta horren arabera moldatuz noa.

Taula gainean ikuskizun ugari eman dituzu urte hauetan. Nola eboluzionatu du zure ikuskizunak?

Esan daiteke ibilbide arraroa egin dudala magoaren artean. Hasieratik espezializatu nintzen karten manipulazioan; ohikoena, ordea, mago hasiberriek denetarik egitea da. Nire kasuan bi urte egon nintzen Bilboko akademia hartan, harik eta 2018an manipulazioa egiten zuen Gasteizko mago bat ezagutu nuen arte. Geroztik, berarekin elkartzen nintzen astean bost-sei orduz, nire hamar minutuko emanaldia prestatzen joateko.

Ikuskizun labur hori jendarean eskainiz eta errepikatuz, gaitasun berriak bereganatu nituen, eta lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen. Bartzelonan, Bilbon, Frantzia, Italia edota Portugalen egon naiz lehiaketa horiei esker.

Gainera, sari garrantzitsuak atera ditut bertatik. Frantziako eta Portugalgo Magia Sari Nazionalak dira esanguratsuenak. Italiako ere oso inportantea izan zen, nazioarteko jaialdi batean lortu nuen, Espainian lortutakoa bezala.

Lau urteko ibilbide bizi horren

elkarrizketa

ostean, ordu beteko ikuskizun batera egin dut jauzi. Publikoa-rekin elkarrekintzan egon nahi nuen, horrek erakartzen ninduen gehien. Askok gustatzen zait publikoarekin elkartzea, txantxak egitea eta hitz egitea; agerikoa da hori (barreak)!

Espero zenuen ibilbide hau egitea magia praktikatzen hasi zinenean?

Ez, ez! Hau galdetzen didaten guztietan beti erantzuten dut berdina; kalte baino zorte gehiago izan nuen futboleko lesionatu nintzenez. Niretzako ikaragarria izan da azken urte hauetan bizi izan dudana. Uste dut oraindik bide luzea dudala aurretik, leku asko ditut bisitatzeko eta ikuskizun asko egiteke.

Hau errealtate bihurtutako amets bat da. Zeinek pentsatuko zukeen 2016an kartetan jolastan zuten lesionatutako haur lotsati batek 200-400 lagun aurrean ikuskizun bat eskainiko zuenik!

Maila pertsonalean ere, ekarpen handia egin dizu magiak, ezta?

Bai, eta garrantzi handia ematen diot horri. Magia egiten hasi nintzenez, oso mutil lotsatia nintzen, eta ez nuen harreman

“Hau galdetzen didaten guztietan beti erantzuten dut berdina; kalte baino zorte gehiago izan nuen futboleko lesionatu nintzenez”

askorik pertsonekin oro har. Baina, geroztik ate asko zabaldu dizkit, eta pertsonekin harremanetzeko trikimailu liluragarriak eskaini dizkit magiak.

Agenda betea izango duzu honezkero.

Ebakuntza bat egingo didate aurki, ez da oso larria, baina hila-bete bat egongo naiz showrik eskaini gabe. Gertuko magia saioak bai eskainiko ditut, ekainaren 10ean Laudion, esaterako. Udan atseden hartuko dut; izan ere, azken hilabete hauek oso estres handikoak izan dira. Udazkenean, ordea, Frantziako jaialdi batera joango naiz. Irailean eta urrian, gainera, ikuskizunak ditut lotuta Azpeitian, Gasteizen, Erandion...

Eta, epe luzera begira, non ikusten duzu zure burua?

Nire ametsa beti izan da Madrilgo Gran Via kalean, bertako antzoki batean, astero hiruzpalau saio eskaintzea, eta jendea nire ikuskizunaz gozatzeko aitzakiarekin joan dadila Madrilera. Las Vegasen denboraldi bat igarotzea ere gustatuko litzaidake.

Zeintzuk dira zure erreferenteak magiaren munduan?

Imanol D'albeniz mago gasteiz-

“Nire ametsa beti izan da Madrilgo Gran Via kalean, bertako antzoki batean, astero hiruzpalau saio eskaintzea”

tarra da nire erreferente nagusietako bat. Bera da nire ikuskizuna prestatzen lagundu ninduen. Oso mago ona da karten manipulazioan.

Askok miresten dudana beste mago bat, Pop Magoa da; bera bezalakoa izatea gustatuko litzaidake. Oilo-ipurdia jartzen zait bere ikuskizuna ikusten dudanean. Ikusizun ikaragarria dauka, antzoki propio bat Bartzelonan, egoiliarra da Madrilgo aretoetan... Eredu da niretzat, hori da nire ametsa.

Elkarrizketa hasieran aipatu duzu magia arte mota bat dela, horrela aldeko alegato bat eskatu nahi dizut.

Nik uste dut beste espresio artistikoek ez duten gauza bat duela magiak: sorpresa. Ez dakizu zer gertatuko den, eta hori da bere esentzia. Trikimailuek nola funtzionatzen duten ez jakitea, lilura momentu hori... oso berezia da.

Magia, gainera, interdisziplinarra da, elementu askoren nahasketa. Magoak dantza erabiltzen dugu ikuskizuna garatzeko, akote lanak egiten ditugu, musika lantzen dugu... guzti hori sorpresa liluragarri batera iristeko.



herriz herri

Urduña

Datorren urtera arte agurtu dituzte Otxomaio jaiak

Argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Amaitu dira Urduñako Otxomaio jaiak. Maiatzaren 14an Bihotzari agur esateko kalejira egin zuten. Ohikoan bezala, tristura eta alaitasuna uztartu zituzten, hileta umoretsua irudikatuta.

Festen balorazio positiboa egin

du Urduñako Udalak. Lehen aste-burutik egondako parte hartze zabala goraipatu du tokiko erakundeak, jende asko bertaratu dela nabarmenduta. Tortilla eta paella txapelketan, adibidez, inoiz egondako parte hartzerik handiena egon zen. Bigarren asteburuan, aldiz, eguraldia kaskartu egin zen, baina horrek ez du jendea kikildu. "Larun-

batean giro handia egon da herri bazkarian eta Esne Beltzaren kontzertuan plaza topera egon da, nahiz eta euri azpian egon", azaldu du Itziar Biguri alkateak. "Gaurko egunean -amaitzak 14-, aldiz, putxerak izan dira protagonistak. Eguraldi kaskarra egon arren 62 putxera egon dira eta oso giro polita sortu da plazan".



Urduña

Urduñan desobiratutako lehenengo gorpua identifikatu dute: Fructuoso Llorens

Aranzadiko kide bat Urduñako hilerriko indusketetan. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Gogora Institutuak jakinarazi duenez, identifikatu dute Urduñako hilerrian desobiratutako frankismoaren biktimen artean lehenengoa. Aintzane Ezenarrok, Gogora Institutuko zuzendariak, eman du aurkikuntzaren berri, eta "oso albiste pozgarri" bezala kalifikatu du.

Fructuoso Llorens

Fructuoso Llorens da identifikatutako lehenengo biktimena. Jatorriz Badajozeko Fuente del Maestre herriko bizilaguna zen Llorens, eta nekazaritza zuen ogibide. Gerra Zibileko azken urtean, 1939an, etxetik indarrez atera zuten, eta geroztik senide eta lagunek ez zuten haren berririk izan. Extremaduratik Urduñako espetxera eramane zuten eta, ikerketen arabera, 1941eko apirilaren 6an hil zen, 55 urte zituela.

Extremadurako nekazariak lau alaba zituen, eta horietako bat izan da identifikazioa gauzatu ahal izateko giltzarria: Juana Llorens. Aita etxetik aterazutenean 10 urte zituen Juanak, orain 94 ditu. Iragan otsailean

ADN lagin bat entregatu zion Gogora Institutuari, Urduñako gorpua identifikatzeko kanpainaren barruan, eta horri esker lortu dute hezurrei izen jaretzea.

Gogora Institutuak Francisco Llorensen familiari entregatuko dizkio gorpuzkiak datozen hilabeteetan.

Identifikazio lanak aurrera

Aranzadi Zientzia Elkarteak 2014an eta 2022ko abenduan egin zituen indusketak hiriko hilerrian, eta 1939 eta 1941 urteen artean Urduñako espetxe frankistan hildako presoengorpua aurkitu zituen bertan. 225 pertsona zendu ziren, gutxienez, Urduñan ezarritako gerrako presoengonkzentrazio-esparruan eta espetxe zentrallean. Gehienak goseteen, hotzaren, gaixotasunen eta baldintza txarren ondorioz hil ziren. Aranzadik egindako azken ikerketa batek, gainera, argitara atera du Urduñako presoak bortxazko lan astunak egitera behartuak izan zirela.

Fructuoso Llorens da aurkitutako 71 biktimen artean identifikatutako lehenengoa. Lanak, beraz, ez dira amaitu.

Aiara

Erabateko arrakasta lortu du Aiarako I. Bolo Txapelketak

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aiarar boloa ezagutarazteko asmoz, Aiarako I. Bolo Txapelketa antolatu dute Kexaako Club Bolatoki Ayalak, Luiaondoko Leku-batxe Klubak eta Aiarako Udalak. Txapelketak bi asteburuko iraupena izan du, eta eskualdeko herritarrek jarri ditu norgehiagokan. Apirilaren 22an ekin zioten txapelketari Kexaa eta Beotegi-

Bea Isasi, Iñaki Molinuevo eta Asier Martin izan dira txapelkunak tokiko kirolarien norgehiagokan

ko bolatokitik. Txapelketa, al-diz, Luiaondoko bolatokitik ebatzi zen, maiatzaren 6an. Bea Isasi, Iñaki Molinuevo eta Asier Martin izan dira lehenengo edizioeko txapelkunak.

Antolatzaileak oso pozik agertu dira lehenengo edizioak izandako harrerarekin. Nabarmendu dute "ilusio eta gogo askorekin" antolaturiko txapelketa izan dela honakoa, kirola eskualdean gehiago errotzeko asmoz.

2023KO





UDAKO ESKAINTZA

Naturaz eta euskaraz blai

- **TXANDAK**
 1. Ekainaren 26tik 30era
 2. Uztailaren 3tik 7ra
 3. Uztailaren 10tik 14ra
 4. Uztailaren 17tik 21ra
 5. Uztailaren 24tik 28ra
 6. Uztailaren 31tik abuztuaren 4ra
 7. Abuztuaren 7tik 11ra
 8. Irailaren 4tik 8ra

- **TOKIA**
FAKTORIAⁿ jaso eta itzuliko ditugu haurrak. Udalekoa inguruko baso eta naturguneetan garatuko ditugu.
- **ORDUTEGIA**
Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30
- **ADINA**
2013-2020 urte bitartean jaioetako haurrak
- **PREZIOAK**
 - **ASTE BAT:**
Bazkideak 65 € // Ez bazkideak 75 €
 - **NAHI DITUZUEN BI ASTE:**
Bazkideak 110 € // Ez bazkideak 130 €
 - **NAHI DITUZUEN 4 ASTE:**
Bazkideak 200 € // Ez bazkideak 240 €

JANTOKI zerbitzua

Zuen haurra 16:00ak arte jasotzeko aukera izango duzue

- TOKIKO PRODUKTU eta PRODUKTU EKOLOGIKOEN eginko bazkariak
- NON? Faktorian

• **ASTE BAKOITZEKO PREZIOA:**
BAZKIDEEK 45€ - EZ BAZKIDEEK 55€

• **EGUN BAT APUNTATU NAHI IZANEZ GERO:**
EGUNA BAZKIDEEK: 12€ - EZ BAZKIDEEK: 15€

IZENEMATEA

- **INTERNET BIDEZ:**
www.labur.eus/faktoriaudalekuak2023
- **TELEFONOZ:**
693 85 53 12 (Aritz)
9:00etatik 13:00etara et
17:00etatik 20:00etara

• QR KODEAREN BITARTEZ



herriz herri

Aiaraldea

Eskala handiko hiru azpiegitura energetiko eraiki nahi ditu Eusko Jaurlaritzak Aiaraldean, bat eolikoa eta bi fotovoltaikoak



Aiaraldeko Mendiak Aske plataformak egindako mendi ibilaldia. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Eusko Jaurlaritzak iragan astean argitaratu zuen Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren hasierako onarpena, eta egitasmoak eragina izango du eskualdean. Izan ere, eskala handiko parke eoliko bat eta bi azpiegitura fotovoltaiko eraiki nahi ditu Aiaraldean.

Energia eolikoa baliatuko lukeena Ganekogorta, Gazteluzar eta Mugarriluze mendien artean kokatuko litzateke. Instalazio fotovoltaikoak, ordea, Amurrión eta Aiaran egongo lirateke. Gogoratu beharra dago Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Energiaren Euskal Erakundea direla Ekiola proiektuaren bultzatzaileak; horren bidez Saratxon 3.000 metro karratu baino gehiagoko azpiegitura fotovoltaikoa egin nahi dutenak. Ekimen horrek bat egingen du dokumentuan aipatutakoarekin.

Bestalde, ezin da ahaztu delako hilabete inguru Olabazarrekobiztanleek bertan behera utzi

zutela plaka fotovoltaikoak jartzeko eskaintza. Edonola ere, proposamen hori erakunde pribatu baten zen. Hala ere, herritarrek salatu zuten sustatzaileek ohartarazi zieten modu batean edo bestean proiektua gauzatu zela.

Proiektugehiago eskualdean

Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorial honetan jasotako asmoen xedea da 2030ean EAEko energia berriztagarria biderkatzea. Hau da, kontsumoa %10etik %21era igotzea. Horretarako, mahai gainean jartzen diren parke eoliko eskala handikoak dira, hau da, 30 megawatt baino gehiagoko potentziadunak, baina, 50 megawattera heldu gabe, horiek Espainiako Gobernuaren eskumena baitira.

EAEko hainbat puntutan sakabanatu ditu Eusko Jaurlaritzak balizko azpiegitura horiek. Dena den, aipatutako ekimen publikoak dira eta Aiaraldean badaude esku pribatuaren bidez helduko direnak edo bestelako erakundeen jarduerarekin.

Esaterako, Jesuri eta Untzueta-ko parke eolikoak enpresa pribatuaren proiektuak dira.

Horiei batu behar zaie Gaztela eta Leongo Gobernuak Gorobelen instalatu nahi duena.

Aiaraldeko Mendiak Bizirik

Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak aste honetan salatu du prentsa ohar bidez energia berriztagarrien planek Lurralde Antolamendurako Zati Planek baino balio gutxiagoa dutela, eta, ondorioz, ezingo liratekeela egitasmo hauek gauzatu, 2020an berrikusitako zati planek ez baitzituzten mahai gainean. Horrez gain, plataformako bozeramaile bat haserre agertuzen Eusko Jaurlaritzaren prozedurarekin, bere ustez, herritarren partaidetza eragotzen du: "Hamalau urte behar izan dituzte plana onartzeko eta ehunka orrialdeko dokumentua da, baina herritarroei 45 egun baino ez dizkigute eman helegiteak aurkezteko. Nondik aterako dugu denbora txostena irakurri eta analizatzeko? Ez dira gure parte hartzea errazten ari".

Laudion eta Amurrión larrialdi zerbitzuak lau egunez medikurik gabe egon direla salatu du LABek

Testua
Txabi Alvarado Bañares


LAB sindikatua Aiaraldea Komunikabidearekin jarri da harremanetan salatzeko Laudioko anbulatorio-ko larrialdi zerbitzua hiru egunez egon dela medikurik gabe eta ostira-lean egoera berean geratu zela Amurrioko. LABeko ordezkariak azpimarratu dute ez dela izan egoera isolatua eta aurretik hainbat asteburu eta lan egunetan ere ez dela medikurik egon. Sindikatuak azaldu du medikuen ordez erizainak eta zelariak ari direla ez dagozkien ardurak hartzen:

"Emergentzia baten aurrean, erizainak ezin du medikuaren agindurik barik medikaziorik eman. Emergentzia batek, berehala artatua izatea eskatzen du, bizitza arriskuan baitago eta egoera honetan, telefono bidezko bitartekaritza bat ez da segurtasunez egin daitekeen artatzea. Osasun egoera ezberdinen aurrean, zelariak erabakiak hartzea behartuak egon dira". Egungo gabeziak Eusko Jaurlaritzako "logika pribatizatzaileari" egotzi dizkio sindikatuak eta, horregatik, maiatzaren 18an eta 19an Osakidetzan deituta dagoen grebara bazterera animatu ditu langileak.

EKAINAK 17-18

Tertangako aterpetxean

B



Solasaldiak,
tailerrak,
batukada,
ahalduntze tailerrak,
familia gunea (ipuin
kontalaria eta jolasak),
ikuskitzak...

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Laia

urtxintxa
EUSKALDE

Laudio

Latorro ikastetxearen 50 urteko ibilbidea jaso dute argazki erakusketa batean

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Latorro ikastetxearen historia bil-tzen duen argazki erakusketa antola-tu dute Laudioko Kultur Etxean. Ikas-tetxeak asteburu honetan ospatuko du mende erdia, eta ospakizunen ba-rruan kokatu dute egitasmoa.

Bildumak eskolaren historia luzea herrira gerturatzea du helburu. La-tiorroko irakasle-ohi talde bat da ar-gazki erakusketaren atzean dagoena. "Zuzendaritza berria da, eta guri proposatu ziguten erronkari heltzea. Guk oso gustora heldu diogu, gaine-ra", azaldu zuten inaugurazioan.

Erakusketa maiatzaren 22ra arte egongo da ikusgai, eta gero Latorro-ko webgunean eskegiko dituzte ar-gazki guztiak.

Menendez Pidal, Ortega y Gasset 1973an sortuzen eskola. Garai har-tan Laudioko bbiztanleria izguarri hazi zen, eta ezinbestekoa zen ikas-tetxe berriak irekitzea. Argazki era-kusketarako ikastetxearen eraikun-tzako argazkiak lortu dituzte ere.

Hasieran bi zentro zeuden gaur egun Latorro ikastetxeak hartzen duen orubean: Menendez Pidal eta Ortega y Gasset. Bi ikastetxeek 1995 egin zuten bat, Lateorro LHI ikaste-txeari bidea egiteko.

Hamaika ekintza, hamaika irudi Argazki erakusketa gaika anto-latu dute. "Ikastetxean egiten ziren eta, oraindik ere egiten diren, jar-duera eta ekintza desberdinak era-kutsi nahi izan ditugu". Gauzak ho-rrela, barnetegiak, inauteriekin,

kirol-ekintzekin... lotutako argaz-ki sortak aurkituko dituzte bertar-zen diren herritarrak. Ingurumen arloarekin lotutako argazki bildu-ma bat ere osatu dute. Izan ere, La-tiorro ikastetxeak lotura estua izan du gaiarekin, eta dozenaka ekintza burutu dituzte bertan ingurumena-rekin lotuak.

Oroitzapen bilduma

Argazkiekin batera, ikasle eta ira-kasle ohien testigantza idatziak ere jaso dituzte erakusketan. Besteak beste, Txani Rodriguez idazle lau-dioarrak edota Silvia Manrique Hoc-keyjokalarari olinpikoakidatzi dute euren eskola-garaiaren inguruan.

Liburu zuri bat ere prestatu dute, bisitariak euren iritzi eta oroitzape-nak bildu ditzaten.

Saharako elkartasun karabana Laudiotik abiatu zen larunbatean



40 tona elikagai atera ziren Laudiotik larunbatean, Tinduferra. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Larunbat goizean Sahara-ren aldeko elkartasun karaba-na errepidera aterazen Laudio-tik. Hori baino lehen, Fronte Polisararioaren ordezkariak hitza hartu zuten gogoratzeko burujabetzaren aldeko borro-karen hasieraren 50. urteurre-na dela.

Halaber, euskal gizarteak beti erakutsitako babesa, el-karteen eta erakundeen bi-dez egituratuta, eskertu zuen. Aurten 40 tona elikagai batu dituzte EAEn, baina antolatzaileek nabarmendu dute ez dute-la gehiago jaso nahi izan, erre-fuxiatuen kanpaleketan zail-tasunak izango lituzketelako kudeatzeako orduan, bitarte-ko faltaren ondorioz.

Ikasturte osoa: 630€

50 urtetik gorako esperientzia. Cambridgeko azterketak prestatzeko zentroa.



Idiomas

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA

elkarrizketa

“Uste dut deshumanizazio handia zagoela migratzaileekiko, eta hori gainditzea lortu dugu”



PATIENCE IDEMUDIA (Laudio, 2008)

TENERIFEKO ADEJE HERRIAN IZAN DA, FILOSOFIA OLINPIADAN PARTE HARTZEN. ‘MUGAK ETA JUSTIZIA GLOBALA’ IZAN DITUZTE HIZPIDE ETA HAUSNARKETAK ELKARBANATU DITU AIARALDEA KOMUNIKABIDEAREKIN



Testua eta argazkia
**Aimar
Gutierrez Bidarte**

Tenerifen egon zara apirileko azken astean Espainiako estatuko Filosofia Olinpiadan parte hartzen.

Lehenengo postua lortu nuen Eibarren izandako Euskadiko V. Filosofia Olinpiadan, dilema moralaren modalitatean. Lau modalitate ziren guztira, eta modalitate bakoitzeko irabazleak Tenerifera joan ginen estatu mailako Filosofia Olinpiadan Euskadi ordezkatzeko.

Zer nolako ekintzak egin dituzue Tenerifen?

Apirilaren 27an, ostegunean, joan ginen Tenerifera eta hiru egun eman genituen uhartean. Egitarau oparoa prestatu zuten bertan, ekintza asko egin genituen. Ostiralean lehenengo ariketa jarri ziguten; idazlan berri bat osatu behar genuen, betiere 'mugak eta justizia soziala' gaiarekin lotuta. Bisita gidatu bat ere egin genuen Adeje herritik. Bisita antzeztu bat zen, guk hasieran ez genekien arren. Hainbat aktore zeuden herriko bazterretan, eta hausnarketak bideratzea zuten helburu. Kanean bizi zen emakume batek, adibidez, kapitalismoaren kritika bat egin zigan.

Larunbat goizean ostiralean idatzitako ariketaren sari banaketa egin genuen, maila altuko ordezkariak izan ziren bertan. Modalitate bakoitzetik hiru lan hautatu zituen epaimahaiak. Gainerakook ez dakigu nola kalifikatu zituzten gure idazkiak, gustatuko litzaidake jakitea.

Teide bisitatzeko aukera ere izan genuen. Nik amari mezu bat idatzi nion sumendi bat ikustera joango ginela esanez. Mezua bidali eta gutxira estaldurarik gabe geratu ginen; lau orduren ostean amaren hamaika dei galdu nituen, sumendi aktibo batera gindoazela uste baitzuen (barreak).

Olinpiadari eta egonaldinari amaiera emateko afari bat egin genuen, bertan jende gehiago ezagutzeko aukera izan nuen.

Zuk dilema modalitatean parte hartu duzula esan duzu. Zertan datza ariketa hori? Nola ebazten da?

Egoera hipotetiko bat eta galdera bat aurkezten dizute horrelako ariketetan, aukera desberdinen artean erantzun bat hautatzeko beharra eskatzen duena. Aukera posible baten eta bestearen aldeko eta kontrako argudioak mahai-gaineratu behar dituzu, filosofo

eta pentsalarietan oinarrituta. Gatazkaren balioak azalerratu behar dira disertazioan, eta bertatik aukera bat hautatu, ateratako ondorio guztiak kontutan hartuta.

'Mugak eta justizia globala' izan da aurtengo edizioeko gaia, eta zuk horren inguruan hausnartu duzu.

Eibarreko finalean errefuxiatu eta migratzaileen gaia landu genuen: familia batek asilo politikoa eskatzen du krisi ekonomikoak jota dagoen herrialde batean, eta guk gobernuak egin beharrekoaren inguruan hausnartu genuen. Tenerifeko dilema orokorragoa izan zen; mugak bai ala mugak ez.

Eibarreko ariketan Greziako eta Siriako datuak hartu nituen abiapuntu. Bai Eibarren eta baita Tenerifen ere, zenbait filosoferen iritziak aipatu nituen, eta Etika Eskolei ere egin nien erreferentzia.

Etikak bi talde handitan banatzen dira. Batzuek defendatzen dute zorientasuna ematen digun hori egiteko beharra, eta horren harira agian erabaki dezakezu errefuxiatu horiek ez artatzea. Hor kokatzen dira testuan aipatu nituen Epicuro edota Stuart Mill. Bigarren talde batek, ordea, justiziaren etikaren alde egiten du; gure betebeharrak eta ondo dagoena egiteko zorientasuna sakrifikatzearen aldekoak dira hauek. Bi ikuspegi horietan oinarritu nintzen.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko hainbat artikulua ere baliatu izan ditut idazkietan. Izan ere, 1948an Parisen onartutako adierazpeneko 2.3 eta 13 artikuluek mugarik gabeko mundu baten alde egongo lirarteke, pertsona orok modu librean bidaiatzeko eskubidea aitortzen baitute.

Zuk ez duzu filosofia ikasi oraindik, ezta?

Ez, ni DBHko 3. mailan nago. Pentsamendu kritikoa eta autonomoa izeneko ikasgai batean prestatu dut olinpiada. Asko gustatzen zait hausnartzea, eta horregatik eman nuen izena bertan. Ez nuen inondik inora espero finalista izatera iritsiko nintzenik.

Dilemaren modalitatean iritsi nintzen finalera, baina beste bi modalitatetan ere aurkeztu nintzen Filosofia Olinpiadara: bideo gintzan eta argazkilaritzan. Bideoarekin ere aitortza jaso nuen Eibarreko finalean.

Zer landu zenuen bideo horretan?

Mitologoaren arabera ipuin eta kondaira klasiko guztietan erre-

elkarrizketa

pikatzan den eskema hartu nuen oinarri bezala: heroiaren bidaia. Gaia 'Mugak eta justizia globala' izanik, heroiaren bidaia hori nire amaren biografian aplikatu nuen, bideoz grabatu nion elkarrizketa baten bidez.

Nire ama nigeriarra da. Nigeriatik eortzeko egindako bidaia horretan Heroiaren Bidaiko elementuak identifikatzen joan nintzen.

Ezagutzen zenuen zure amaren istorioa?

Ez. Orain arte ez nekien zerk ekarri zuen nire ama Laudiora. Berak ez zidan inoiz kontatu eta nik ez nion inoiz galdetu. Filosofia Olinpiadak pixkabatt gehiago elkartu egin gaitu.

Uste duzu gaiarekiko gertutasun horrek lagundu dizula ariketa filosofikoak ebazterako orduan?

Ez, niretzako gaia ez da jendeak uste duen bezain gertukoa. Ez nuen nire hurbileko gai bezala ikusten. Amarekin izan nuen elkarrizketak asko harritu ninduen. Kontatu zidan txalupa batean egin zuela bidaia.

Guk Amets Arzallusen Miñan liburua irkaurri berri genuen, eta ezin nuen sinistu nire amak liburuko protagonistak bizi izan zuen berdina bizi izana. Aurkikuntza oso poiltza izan da!

“Pentsamendu kritikoak begirada enpatikoagoa eskaintzen digu, problematikei modu eraginkorrean erantzun ahal izateko”

Pentsamendu kritikoak eta landu dituzuen bezalako hausnarketek nola lagundu dezakete migrazioaren gaiari heldzerakoan?

Horrelako ariketak eta ikasgaiak oso lagungarriak dira gure pentsamendua garatzeko, eta oinarririk gabe iritziak eta buloak gezurtatzeko. Askotan mespretxatu egiten dira horrelako ikasgaiak, baina beste alor batzuk baino ekarpen handiagoa egiten dutela uste dut nik. Pentsamendu kritikoak begirada enpatikoagoa eskaintzen digu, problematikei modu eraginkorrean erantzun ahal izateko. Txikitatik landu beharko genukeen zerbait da. Izan ere, orain institutan aurreiritzi eta estereotipo asko ikusten dira, jende askok gauzak hausnartzeko tarterik eta gaitasunik izan ez duelako.

Uste duzu Institutuan gaiarekiko hausnarketa sakonago bat ahalbidetu duela zu Tenerifera joan izanak, edo Eibarren ikastetxeko ordezkari zabal bat egon izanak?

Ez dakit eragina izan duen, baina egia da Filosofia Olinpiadari esker gaiaren inguruan asko hitz egin dugula klasean, gaiari lotutako pelikulak ikusi ditugu... Orain, migrazioaren inguruko buloak haizatzen zituzten klasekideek ez dituzte hauek gehiago zabalitzen. Uste dut deshumanizazio handia

“Bidaia honetan gehien baloratzen dudana nire kideekin euskaraz bizitzeko aukera izan da”

zegoela migratzaileekiko eta hori gainditzea lortu dugu.

Zer egingo dute Tenerifeko parte-hartzaile guztien lanekin?

Santillana argitaletxeak Tenerifen izan ginen finalista guztion idazkiekin liburu bat argitaratuko du.

Beste hiru ikasle euskaldunekin joan zara euskal ordezkariaren barruan. Nolako harremana izan duzue?

Oso ondo moldatu naiz eurekin, eta euskaraz harremandu izana asko baloratzen dut. Ez dakit Araban gertatzen den zerbait den, edo orokorragoa den, baina nik ez dut euskaraz hitz egiten nire lagunekin, ez dute gogoko. Irakasleekin bakarrik egiten dut esukraz. Tenerifeko bidaian, hasieran oso deseroso sentitzen nintzen, mundu guztia ari baitzen euskaraz eta niri ez zitzaizkidan hitzak ateratzen. Euskara ondo ulertzen dut eta ondo hitz egiten dut, baina eskolako hizkuntza izanik, hasieran arrotza egiten zitzaidan beste giro batean erabiltzea. Baina, egundoko bultzada eman didate, oso jarrera ona izan dute nirekiko eta nik euskaraz egitearen alde. Bidaia honetan gehien baloratzen dudana nire kideekin euskaraz bizitzeko eta harremantzeko aukera izan da. Askok gustatzen zait euskaraz aritzea, eta Tenerifen deskubritu dut hori (barreak).



kultura

800 lagun baino gehiago eraman zituen Esti Urresolaren filmak Amurrio Antzokira



Esti Urresola Amurrio Antzokian eskainitako solasaldian. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Esti Urresolak erakutsi du posible dela profeta izatea norberaren herrian eta hiru egunetan 825 lagun batu zituen Amurrio Antzokian. Izan ere, zinema aretoetan apirilaren 21ean estreinatu ostean, apirilko azken asteburuan heldu zen 20.000 especies de abejas pelikula Amurriora. Amurrioko Udalak jakinarazi duenez, larunbatean 149 ikuslek ordaindu zuten sarrera, igandean 335 izan ziren eta astelehenean

341. Azken saioan Urresolak berak hartu zuen hitza gainezka zegoen aretoan eta solasaldia eskaini zuen emankizuna baino lehen eta ostean. Mugarri txikia bada ere, Laudioko zuzendariak emaitza arrakastatsua eskuratzen jarraitzen du. Izan ere, Berlinale, Malagako zinemaldian eta Hong Kongeko Nazioarteko Jaialdian sariak eskuratu eta gero, bere lehen asteburuan 48.000 herritar eraman zituen aretoetara eta bigarrenean proiektzio puntu gehiagora heldu zen.

Kulturarako espazioa sortu dute Zubiko Malekoian

Testua
Aitor Aspuru Saez

Zubiko Malekoia egitasmoak zenbait taberna eta jatetxe baten ditu Laudioko Zubiko Kurajo kalean eta berriki kulturarako gunea inauguratu dute. Ostalari batek azaldu duenez, "Zubiko Malekoia hiru ardatz ditu: gastronomia, musika eta kultura. Gastronomiari dagokionez, laster jatetxe berria irekiko dute. Musikaren esparruan, ordea, udan hainbat kontzertu antolatzen ditugu, baina kulturaren arloa garatzeke genuen".

Hori konpontzeko, Malekoian espazio kulturala prestatu dute: "Kultura gunea sortu dugu kalean. Kulturakomoko jardura izan da erreferentea guretzat, eta Kes-

ka Tabernako horma baliatu dugu horretarako. Auzokideek ere eskatzen zuten inguru hori atontzeko, pintadaz gainezka baitzegoen".

Dena den, egitasmoaren bultzatzaileek aitortzen dute euren asmoa apala dela: "Ez dugu Kulturakomerekin duen maiztasuna lortuko murala aldatzeko orduan, ez dugu laguntzarik jasotzen, baina nahi dugu toki horretan argazkiak, olerkiak edota pintura izatea protagonista". Udalak poesiari lotutako egitaraua osatzea aurreikusitako duela profitatuta, Malekoian ere poesiarekin harremana duen murala jarri nahi dute maiatzean: "Hala ere, oraindikari gara artistekin harremanetan eta espero dugu bi astetan lehenengo arte lana erakustea".

Sanantolinetako kartel lehiaketa abian dago

Testua
Jone Gartzia Gerra

Iraila hasieran ospatzen dituzte orozkoarrek herriko jaiak. Dagoeneko prestakuntzan murgilduta dago Antolinzeak jai batzordea, eta jaiak iragarriko dituen kartela hautatzeko lehiaketa abiatuko du laster.

Asteartean irkei zuten sanantolinetako kartelak aurkezteko epea, ekainaren 9ra bitarte (bi egunok barne). 2023ko maiatzaren 4an Orozkoko udalerriaren erroldatutako edozein auzokidek hartu ahal du parte lehiaketan. Edozein teknika baliatu ahal du lanak sortzeko;

baina denek izan behar dute originalak eta inoiz argitaratu gabekoak.

Neurriak eta erantsi beharreko testuazehaztu dituzte Antolinzeak elkarteak. DIN A3 tamainako (420 mm X 297 mm) orri bertikalean aurkeztu behar dira lanak eta kartelak honako esaldia jaso beharko du: Orozkoko sanantolinak 2023, abuztuaren 31tik irailaren 4ra.

Gehienez, lehiakide bakoitzak hiru afixa aurkeztu ahal ditu eta denak sinatu gabekoak izan beharko dira. Lanok posta elektronikoki bidetz, Induma Gazte eta Kultura Informazio Gunera eramanez edo bertara posta ziurtatu bidez helaraziz aur-

kez daitezke, egilearen datuak aparteko orri batean adieraziz.

Hiru sari banatuko dituzte ekainaren 9ra bitartean jasotako lanen artean: irabazleak 300 euro jasoko ditu, bigarren saria 150 eurokoa izango da eta 14 urtetik beherakoei zuzendutako umeen saria eskuratzen duenak 100 eurotan baloratu-tako pintura-materiala jasoko du.

Ekainaren 10etik 18ra bitartean irabazleak aukeratu dituzte artearen eta irudiaren arloko pertsonak osatutako epaimahaiak eta herriarrek. Egun horietan zehar afizak Orozkoko Museoan egongo dira ikusgai.

etorkizunAK

ARTE ERAKUSKETA

Ekainak

2

OSTIRALA
19:30

LAUDIOKO ARTE
BATXILERGOKO
IKASLEEK ANTOLATUTA

ERAKUSKETA ZABALIK EGONGO DA:
EKAINAK 2 EKAINAK 16 BITARTEAN
FAKTORIAKO ORDUTEGIAN.
ASTELEHENETIK OSTIRALERA: 16:30-20:30
LARUNBATEAN: 10:30-14:00

LAU
DIO
BHI
.eus

FAK
TO-
RIA

Iragan maiatzaren 7an 'Balbea' antzezlanak ikusten egon zen Agus Perez antzerki kritikaria Aiaraldea Ekintzen Faktorian. Atx teatro konpainiaren piezaren gaineko kritika artistikoa osatu du Aiaraldea Komunikabidearentzako.

Aulkia eta eskopeta, prest



Testua **Agus Perez**

Igande eguerdia eta bazkalordua Dimako lagun baten baserri zoragarrian eman ostean, plan ona iruditu zait Laudioko Aiaraldeko Ekintzen Faktoriara joatea, bertan Atx konpainiaren Balbea ikusteko. Antzezlanak Azpeitian estreinatzen eta ni Lemoako Kotxepin kultur guneko emanaldian egon nintzen, baina harrezkerotik gogoanuen osterak ere ikusteko, lan bikain guztiekin gertatzen zaidan lez.

Lanari izena ematen dion hitza gutxitan erabiltzen dugu egunerokoan. Euskaltzaindiaren hiztegiak zera diosku hari buruz: "Herioari ematen zaion izena. Zorte txarra". Hortik *Balbea* izenburua. Eta horretan dabil gure aurrean dagoen agurea, bere aulki gurpildunean eserita eta arnasa hartzeko maskara jantzita, gerturik odola balbeari bere indar urriez aurre egiteko, eta balbeari ere bai, zelan ez, berak ez diolako Herio jaunari azken unera arte itxarongo.

Ekintzen Faktoriako lokalak oso moldaerazak dira emanaldien neurriarekin aretoak egokitzeko, eta obra honetarako atondu duten gune txikira tantaka etorri dira ikusleak. Herioak bezala, gure zain dago behinola izandako gizon puska, bizitza errealean bezala bazter batean zokoratuta, norbaiten zain balego bezala. Marmarka ari da bere kolkorako, eta noizean behin ezutlaka, zaharrek ohikoa duten legez.

Behin emanaldia hasita, Gabriel Arestiren *Nire aitaren etxea*-ren bertso batzuk esan ditu, bere bizkaiera ederrean eta aulki motorizatuan leku batetik bestera zihola. Berba sendoak, gero, Arestirenak. Aro oso bat markatu zuten eta oraindik ere ez dute esangura eta kemen izpirik ere galdu. "Nire aitaren etxea defendituko dut... (H)armak kenduko dizkidate eta eskuarekin defendituko dut... besorik gabe, sorbaldik gabe, bularririk gabe utziko naute, eta arimarekin defendituko dut nire aitaren etxea". Komeniko litzaiguke hilean behin-edo -urtean behin sikieraberriz irakurtzea. Baina zertarako jada, dena errentan edo zuzenean salgai -prezio merkean, gainerajarri den garai hauetan...

Hor daukagu, ordea, gure agurre tinkoa, sikatearen kontra, lukurreriaren kontra, justiziaren kontra egiteko prest. Gerra garaian, aitatik aulki batean eseri eta guardia egiten zuen gauero baserriaren atarian, eskopeta beti eskuetan. Eta gero, Bilboko uholdeen osteko egunetan aita gauza bera egin zuen bere dendaren aurrean. Orain berari tokatzen zaio zerbaiten zain egotea, baina honezkero ez daki zer defendatu behar duen. Izan ere, ez daki ezta non gorde dituen aulki eta eskopeta mitiko haiek. Agian, armairu misterioitsu horretan daude, bera ateak zabaltzen ezinik dabilela. Eta hor dago gizona, bakardade handian, bisitan egunen batean etorriko zaion semearen esperoan, baina bitartean bere sinesmenetan sendo



Maiatzaren 7an eskaini zuten Balbea antzezlanak Faktorian. **Yuri Agirre**

eta garai bateko balioen defentsan. Hala ere, gizona ez dago bakarrik, alde batetik ikusleak dituelako lagun. Haiei zuzentzen zaie edozein aitzakiarekin, dela "on egin" esateko zerbezari tragoxka ematen dion bati, dela osasuna opatzeko ezutlaka etorri zaion beste bati, dela behagainezko kuxinetan eseri den ikusle gazteari ea euroaren aurreko pezetak ezagutu ote dituen galdetzeko. Eta, bestetik, lagun ditu aulkian bertan darmatzan txotxongiloak. Haietariko batekin dialogo mundiala eduki

du umeek adinduei buruz duten ikuspegiak, eta horren aitzakiaz nagusiek garai batean zuten garrantziaz hausnartu du. Bi panpina txikiekin, ordea, zahar-etxe askotako errealitate gordina erakutsi digu emanaldiaren unerik gogorrean.

Ausarta, zintzoa, hurbila eta egiarekin konprometitua izan da Iñaki Ziarrustaren proposamena. Etorri daitezela honen moduko lan gehiago eta bizi dadila urte luzez horrelako antzerkia denon onerako!

KONPAINIA:
Atx teatroa

SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA:
Iñaki Ziarrusta

TXOTXONGILOAK:
Valentina Raposo

TOKIA:
Aiaraldea Ekintzen Faktoria

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

MC 2C 150/650
Hidrogarbitzaile profesionala

Erabilera ertaineko monofasikoa

Gomendatutako hileroko batezbesteko erabilera orduak: 40
Makina sendoa: Indukzio motordun
Ponpa metalikoa



Nilfisk

~~935€~~
PSP BEZ barne

ESKAINNTZA:
699€

Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net · www.enkarki.net

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak

Utzi zure errenta **22** profesionalen eskuetan

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

Errenta-aitorpenaren plangintza gurekin egin ezazu.

20 urte baino gehiagoko esperientzia

kirola

SKATEA

Akrobaziek hartuko dute larunbat honetan Amurrioko bowla bere lehen urteurrenean



Sergio Layos iazko erakustaldian. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Amurrioko bowlaren lehen urteurrena antolatu dute hainbat zalek eta horretarako larunbat arratsaldean ekintzez beteko dute espazioa. Andima Errazti da ekimenaren antolatzaileetako bat, eta adierazi du aurten ez duela berak bakarrik prestatu: "Herriko hainbat gazteren gurasoek ere bat egin dute eta hamar bat lagun aritu gara dena prestatzen. Bowla inauguratu zenetik, jende berria hasi da diziplina honetan".

Erraztik azaldu du iazko ekitaldiaren arrakasta ikusita, biker eta skater profesionalak ekarriko dituztela aurten ere. Ser-

gio Layos bikerrak eta Ian Ponciano skater bermeoarrak errepikatuko dute eta Javitxu de la Torre biker madrildarrak (oso gaztea dena) ere erakustaldia egingo du. Iazko aurkezleak ere konpromisoa hartu du bere lana egiteko.

Horrez gain, herriko zein kanpoko zaleek aukera izango dute lehiaketetan parte hartzeko eta hiru amurrioko gazte egingo dutela aurreikusi dute: Ane Ramosek, Unai Corderok eta Andoni Ruizek.

Kirolariek azpiegitura utzi arren, jaiak 00:00ak arte iraungo du, Aiaraldeko Soinu Sistema eta 3 Killer Zombiesen musika emanaldiei esker.

HOCKEYA

Zabalik dago Arabako Hockey Federazioak antolatutako kirol campusean izena emateko epea

Testua
Almar Gutierrez Bidarte

Kirol campusa antolatu du Arabako Hockey Federazioak, ekainaren 5etik 16ra. Gardeako udal hockey zelaian egingo dute ikastaroa, eta belar-hockeya ardatz izango badute ere, bestelako kirol eta jolasak ere prestatu dituzte. Honezkerok zabalik dago izena emateko epea eta maiatzaren 26a izango da hori egiteko azken

eguna. Internet bidez bete dezakete izen-emate inprimakia 2007 eta 2017 urteen artean jaiotako hurrek eta, inskripzioa doakoa izango den arren, plaza mugatuak egongo direla aurreratu dute antolatzaileek. Era berean, jakinarazi dute campusa euskaraz garatuko dutela bere osotasunean. Informazio gehiago lortzeko 657778239 telefonora deitzeko aukera dago

KIROL-ELEKTRONIKOAK

Ehundik gora gazte bildu ditu Laudioko E-sports Egunak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Kirol elektronikoen zelairatu ziren maiatzaren 6an Laudioko Granja Kiroldegiko kanpaxan. Egun osoko topaketa antolatu zuen Bilboko Bisons Eclub taldeak, Udalarekin elkarlanean. Hainbat jardueraz gozatu ahal izan zuten bertaratutakoek. Alde batetik, FIFA txapelketan parte hartu ahal izan zuten. Nor-

gehiagoka arratsaldera arte luzatu zen, eta egunaren amaieran jakinarazi zuten zeintzuk lortu zuten puntuazio altuena. 3D inprimigailuak erabiltzeko aukera ere egon zen, eta haur zein heldu ugari bertaratu ziren tresna horien funtzionamendua gertutik ezagutzera.

Horrez gain, lau hitzaldi eskaini zituen Bisons Eclub taldeak. Uxue Tomek eskaini zuen

azken solasaldia. Gazte audioarrrak kirol elektronikoen sektorean dauden lan aukerak izan zituen mintzagai, eta nabarmendu zuen profil askotako pertsonak aritzen direla clubetan lanean, ez soilik bideo-jokalariak. "Nik, adibidez, publizitatea eta harreman publikoak ikasi nituen, eta diseinuaren alorrean aritzen naiz Bisons Eclub taldean", azaldu zuten bertaratutakoek.

Jarrai gaitzazu instagramen!



@komunika.eus


Ematen ditugun zerbitzuak ezagutu nahi badituzu, egin ditugun lanak ikusi, gure lan egiteko moduaren berri izan nahi baduzu... jarrai gaitzazu instagramen



KOMUNIKA
Komunikazio agentzia integrala
Komunikazio | Diseinu grafiko | Ikus-entzunezkoak | Publizitatea | Itzulpen/itzi-interpretazio
www.komunika.eus



PUBLICACIONES REELS ETIQUETADAS



KOMUNIKAZIO AGENTZIA INTEGRALA
FAKTORIAN, Errotari kalea, 4-8 LAUDIO · www.komunika.eus · 946 56 85 54 · komunika@aiaraldea.eus

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Maiatzaren 29an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Paul

Paul, zure urtebetetze eguna pilo disfrutatzea espero dugu. Zorionak eta besarkada handia!

Familia



Aike

Nire lagun mina zara! Zorionak!

Aike



Egia

Zorionak munduko dinamizatzailer soziokultural, DJ eta etorkizuneko aurkezle onenari! Jarraitu EHko mañaneo guztien bira egiten!

La triple T



Txapis

Zorionak Txapis! 33 urte bizkarrean eta oraindik bizitzari sotamanoz eusten! Garrote!

Dr. Salomn



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Denborapasak

ZAILA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2 | | | | | 8 | |
| | | | 5 | | 2 | 7 | 3 |
| | 5 | | | 6 | | 4 | |
| | | 4 | | | | 3 | 6 |
| 5 | 7 | 8 | | | | 9 | |
| 6 | 9 | | | 2 | 8 | | 4 |
| 8 | | | | | 7 | 2 | |
| | | | 2 | | 3 | 6 | 5 |
| | 6 | | | | | 3 | |

ERRAZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 3 | | 7 | | | | 6 | |
| 4 | | | | | 9 | | 8 | 3 |
| | 7 | | | 2 | 3 | | | 5 |
| 6 | | | 4 | | | | | |
| | 5 | | | | 2 | 6 | | 7 |
| | | 4 | 3 | | 5 | | | |
| | 6 | | 8 | | 4 | 5 | 3 | |
| | | 3 | 2 | 5 | | | | |
| 5 | 4 | | | 3 | 7 | | | 9 |

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Pasadena taldearen 'Izpia' diskoa zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Pasadena taldearen 'Izpia' diskoaren zozketa

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Martxoak 26, 12:00etan.

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

UNTXITXO TXURIA

Idazlea: Xoxè Ballesteros eta Oscar Villàn

Itzulpena: Koldo Izagirre

Argitaletxea: Kalandraka

Portugalko aho ipuin baten moldaketa da.

Esamolde literario asko erabiltzen dituen ipuina da, Hitzek josita eta tonalidate batekin eginda ematen dute. Ilustrazioek ikaragarri laguntzen dute istorioa ulertzen eta barre egiten.




1280 ARIMA

Idazlea: Jim Thompson

Argitaletxea: Elkar

Hasierako orrietan komediazko eleberria dirudien arren, nobela beltza da, gogorra irakurlearentzat. Sheriff baten istorioa kontatzen du, herri txiki batean bere karguari eusteko ibilbide bat egiten duena.



JOLAS GUNEA

QUARTO

ZER DA?

Estrategia jolas bat da 2 pertsonen artean jolasteko.

Adin gomendatua 8 urtetik aurrera da. Jolasak ohol bat eta forma ezberdineko fitxak ditu. Fitxa hauek bi kolore dituzte, handiak eta txikiak daude, laukiak eta borobilak eta hutsak zein beteak daude.

Helburua lau fitxa lerro berdinean jartzea izango da. Lau pieza horietatik bik gainera, ezaugarri berdina izan beharko dute (Kolorea, forma, tamaina eta zuloduna edo beteak).

Pieza guztiak jokalariek guztionak dira, hau da, bi jokalariek pieza berdinekin jokatuko dute. Lehendabiziko jokalaria pieza bat aukeratuko du beste jokalaria tableroan jartzeko. Nahi duen pieza izan daiteke. Bigarren jokalaria tableroan nahi duen tokian jarri dezake pieza.

Fitxa jarri duenak, beste pieza bat aukeratuko du eta beste jokalaria emango dio berak pieza hori jar dezan. Horrela egin beharko dute hilaran lau pieza egon arte eta horietako bi behintzat berdina izan arte.

Esan bezala estrategia jolas bat da, lasaia eta pentsatzeko egina.



KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Kosk egin

Gaur nire bi urteko haurra hotzkada batekin aterata da ikastolatik, marka izugarria du! Familientzako gogorra izaten da egoera honen kudeaketa, oso agerikoak diren markak izaten baitira. Gogorra da, bai, markarekin ateratzen den haurraren familientzako, zein horzkada egin duen haurren familientzako.

Barrenak mugitzen dituen egoerak izanda, adinari lotutako gauzak direla esateak bortitza eman dezake. Hala ere, horrela da, adin horretako haurrek kontrolatu ezin duten egoera bat da, beraien emozioak askatzeko modua.

Adin horretan hizkuntza bereganatzen ari dira haurrak, eta askok oraindik ez daukate beraiek komunikatu nahi duten hori esateko gaitasun nahikorik. Horrek sortzen duen frustrazioa, haurrek, modu erasokorrean askatu dezakete. Bai hotzkada batekin zein kolpe batekin.

Bestalde, horzkada eta muxu baten arteko diferentzia oso txikia da adin tarte honetan. Batzuetan gertatu daiteke jolasten duten bitartean, minik emateko intentziorik gabe, ahoa hurbiltzea eta hotzkada egitea.

Beraz, adin hauetan erabiltzen den indarkeria eta hotzkadak emozionalak dira guztiz eta adinari lotutakoak. Hau jakitea ezinbestekoa da erantzun egoki bat emateko haurrari.

Egoera hauen aurrean erantzun egin behar da, erantzunak tamainakoa behar du izan. Haurrari azaldu ahal zaio bestearen mina zelakoa izan den. Haurra behatu daiteke jakiteko frustrazio hori nondik datorkion edo zergatik etorri ahal zaion eta horri erantzun. Haurraren hitz egitea garrantzitsua da, baina drama bat muntatu gabe eta egoerari izugarritzako garrantzia eman gabe. Frustrazio egoera handia badu, profesionalen laguntza eskatzea garrantzitsua izan daiteke. Kosk egiteko beharra badu, elementuak daude behar hori kudeatzeko, haginlariak kasu.

Norberaren haurra horzkada batekin ateratzen bada ere, eman tamainako garrantzia, hau da, gutxi eta ondo neurtua. Ziurrenik, haurrarentzako ez da guretzako bezain larria izango.

NATILAK



OSAGIAK:

- 4 arrutz
- 8 goilarakada azukre
- Litro 1 esne
- Goilarakada 1 arto-irin
- Kanela-zotza

AZALPENA:


1. Lehendabizi 800 esne mililitro irakiten jarri kanela-zotzarekin.
2. Bote batean ondo irabiatu 200 esne mililitro, arto-irinak, arrautzak eta azukrea.
3. Irakiten dagoen esnari kanela-zotza kendu eta botean dugun nahasketan isuri.
4. Azkenik, nahasketa guztia sutan jarri eta ondo irabiatu, bor-bor egin gabe.

Baietz Hamahiru!

Horra Maripurtzil eta Pelloziri, komuna garbitzeko prest. Berdin-berdinak ematen dute gure bi lagunek, ezta? Baina badira aldeak bien artean. Ea aurkitzen dituzun.



Handienetik txikienera



Ordена itzazu komuneko paperak handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikieneri 8.


Bete itzazu hutsuneak, domino zati honek zentzua izan dezan.

Denboraren dominoan




Bakoitzari berea


Gezurra dirudi, zenbat tresna erabiltzen diren etxean garbiketarako. Hona hemen batzuk. Lotu gauza bakoitzari bere izena.



- LANBASA
- ORBANA
- ERRATZA
- XABOIA
- ESKUILA
- PALA
- GARBIGAILUA
- ASTOA
- PERTZA
- XURGAGAILUA
- BELAKIA
- ZAPIA
- KONKETA
- ESKULARRUAK
- LISABURDINA



SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura



Allende Solaun Boada

JAIOTERRIA
LAUDIO (1997)

BIZILEKUA
BELGIKA

BIDAIAREN XEDEA
LAN EGITERA JOAN DA BELGIKARA, GLOBAL TRAINING PROGRAMAREN BIDEZ



“Eguzki ordu gutxiago egoteak psikologikoki eragiten du”

Zerk eraman zaitu Belgikara? Zer egiten duzu bertan?

Global Training programaren bitartez nago lanean urtarriletik, nazioarteko kooperazio proiektuak gidatzen dituen gobernuz kanpoko erakunde batean. Komunikazioaz arduratzen naiz, sare sozialen kudeaketaz eta bideo edizioaz nagusiki; proiektu jakin batzuetan, ordea, koordinazio taldean nago. Ohikoan, Europako eta Latinoamerikako beste elkarte batzuekin batera garatzen dira proiektuak. Bitxia da etxetik baina nazioartean aritzea. Lan egiteko moduak ere ezberdinak dira, estereotipoak gorabehera.

Aurretik ere ezagutzen zenuen herrialdea. Aldaketarik nabaritu duzu?

Belgika bisitatu nuen lehenengo aldian bi egun baino ez nituen eman turismoa egiten; beraz, bai, aldaketa batzuk nabaritu ditut. Pobrezia handia ikusten da kaleetan.

2018an ere konturatu nintzen horretaz, baina ez orain bezainbeste. Grand-Placetik gertu dagoen kale batean emakume bat ikusi nuen kalean bere seme-alabekin bizitzen. Aurretik ez nuen horrelakorik ikusi, eta hemen oso normala da haurrak kalean topatzea. Nire etxetik 15 minutura beste familia bat dago egoera honetan, eta nahiko auzo zentrikoa da.

Moellenbeck ere badugu, Europako auzorik arriskutsuena omen da eta aurreiritzi asko daude jihadarekin izan dituen loturen inguruan. Ez naiz inoiz bertan egon, baina denarik entzun dut. Bergarako lagun bati sakelakoa lapurtu zioten eta, telefonoaren lokalizazioaren arabera, mugikorra bertan zegoen. Poliziaren erantzuna izan zen haiek ez dutela auzo horretan jarduten. Hala ere, badut han bizidun lagun bat. Australiakoa izanik, etxea aukeratu zuen ideiarik izan gabe, eta ez zaio inoiz ezer gertatu.

Europako beste herrialde batzuetatik bidaiatzeko denbora ere izan duzu.

Bai, Bruselaren alde positibo bat da oso ondo konektatuta dagoela eta, gainera, oso eskuragarria eta merkea dela Euskal Herriarekin alderatuta. Estrasburgo, Dublin, Budapest eta Luxemburgo ezagutzeko aukera izan dut. Datorren astean Sofiara noa lanera.

Oro har, Bruselarekin alderatuta, oso lasaiak eta garbiak iruditu zitzaizkidan Estrasburgo eta Luxemburgo, adibidez. Ez dago mugimendu askorik, eta kaleak oso ondo zainduta daude. Budapestean antzeko sentsazioa izan dugu, baina sozialki oso ezberdina dela nabaritu dugu. Dena dela, nire ustez, asteburu batek ez du hiri bat ganoraz ezagutzeko balio.

Zeintzuk dira Euskal Herriaren eta Belgikaren arteko desberdintasun nagusiak?

Neguan ez dago hainbeste girorik eta, gainera, eguzki ordu gutxiago egoteak psikologikoki eragiten du. Errutina bat finkatu arte, apur bat tristeak ziren asteak.

Orain, flandiar klaserik ez dudana egunetan beti dago zer egin. Eguraldi ona iritsi ahala, gero eta jarduera gehiago antolatzen dituzte. Itogarria ere izan daiteke. Gustuko ditudan gauzei dagokienez, jendea libreagoa da janzteko, makillatzeko eta nahi duen bezala jokatzeko. Alde txarra lehen aipatutakoa da: pobrezia, drogen kontsumoa, errespetu faltak festa giroan...

Garraio publikora igotzen zaren bakoitzean, badakizu zer aurkitu dezakezun: bakarrik hitz egiten duen, gogaitzen zaituen edo gaizki begiratzen dizun gizonetako bat. Berdin du orduak.

Kalean bakarrik hitz egitearena oso ohikoa da. Hala ere, oso hiri dibertigarria da, bere esentziaren parte dela uste dut.

BELGIKA



DESKRIBAPENA

Europa mendebaldeko estatu burujabea da. Monarkia konstituzional federala da. Bi eskualde nagusik osatzen dute: Valonia frantsesdunak hegoaldean, eta Flandria nederlandaraduna iparraldean. Tartean Bruselako eskualdea dago. 1830. urtean lortu zuen burujabetasuna, Herbehereetatik bereizita.

AZALERA

30.528 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

11,55 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Nederlandera, frantsesa, alemana, luxenburgera

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maistasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugaldel Alberto Gutierrez, Eunat Ekhñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

